

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA (2021eko abenduaren 26tik 31ra)

Oinarriak

Datak:

2021eko abenduaren 26tik 31ra. Parte hartzaileen eta Txapelketaren helburuen arabera erabakiko da txanda kopurua.

Partiden hasierako ordua:

Arratsaldeko 4 eta erdietan. Goizeko 10etan ere jar daitezke txandak, jokalaria kopuruak txanda gehiago aholkatuko balu.

Tokia:

Iruñeko Nuevo Casino Principal (Gazteluko Plaza, 44 bis – 1. solairua).

Parte hartzaileak:

1972. urtea baino lehen jaiotakoak. 1957. urtea baino lehen jaiotakoek superbeterano moduan jokatuko dute.

Izen ematea:

Nafarroako Xake Federakundearen posta elektronikoan: **["info@fnajedrez.com"](mailto:info@fnajedrez.com)**.

Izena emateko epea 2021eko abenduaren 22an, 14:00etan, amaituko da. Epez kanpo jokalariren bat onartuko balitz, bigarren txandan hasiko luke, 0 puntuz.

Prezioa:

20 euro.

Izena emateko epea amaitu baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, hori egin ezean, kanporatuta gera daiteke jokalaria.

Nafarroako Xake Federakundearen kontu korrontean ordaindu beharko da.

Ordaindu izanaren agiria Federaziora bidaltzea eskertzekoa izanen litzateke.

Jakinarazpenak:

Nafarroako Xake Federakundearen webgunearen bidez (<http://www.fnajedrez.com>) egingen dira. Baita posta elektronikoz ere. Norbaitek posta elektronikorik ez balu, NXFren egoitzan paper bidez emanen litzaioke. NXFren webgunearen bidez informazioa emanda, jokalaria jakinaren gainean geratzen direla ulertuko da. Hala ere, modu pertsonalean ukitutako jokalaria telefono bidez adieraziko zaio, ez ohiko dokumentazioa jaso dezan.

Joko sistema:

Torneoko zuzendariak erabakiko du, jokalaria kopuruaren arabera (aurreikusitako txanden kopurua ere alda daiteke). Behin betiko Oinarrietan zehaztuko da.

Suitzar sistema erabiliko da, horretarako nahiko talde badira. Talde gutxi baldin bada, Liga sistema erabiliko da. Multzoen bidez ere antola daiteke, beste sistemetarako talde gutxi edo asko baldin badira.

Beteranoen eta superbeteranoen arteko banaketa egitea aztertuko da, sailkapen ezberdinak izanen baitituzte.

60 minutu izanen dira partida osorako, gehi 30 segundo jokaldi bakoitzeko.

Indarrean dagoen FIDEren araudia erabiliko da.

Jokalaria kanporatzea:

Jokalaria bat ez bada partidara agertzen eta ez badu idatziz behar bezala arazoitzen, kanporatua izanen da eta lizentzia galduko du. Ezin izanen da NXFko ordezkaria izan ez agertzek urte bateko epean, jokatuko ez duela garaiz adierazi ez badu (aurkariari jakinarazteko).

Arrazoia modu elektronikoa ere adieraz daiteke. Indar handiko arrazoiak soilik onartuko dira: Parekaketa egin aurretik ezagutzen ez ziren laneko gorabeherak, bere osasun gorabeherak edo senideenak, istripuak, garantzizko inguruabar pertsonalak edo familiarenak eta abar. Balorazio berezia egingen da ez jokatzearen arrazoia partida jokatu aurretik ematen bada eta aurkaria jakinaren gainean jartzeko denbora badago.

30 minutu berandu iritsiz gero partida galduko da eta jokalaria ez agertzat hartuko da.

Ranking-a eta parekaketak:

FIDE eloaren arabera (FEDA eloa erabiliko da, FIDE elorik ez dutenekin). Gero, sistema suitzarraren arauak erabiliko dira parekaketak egiteko. Multzoen sistema erabiliz gero, jokalarien banaketa orekatua egiteko erabiliko da ranking-a.

Liga egiten bada, jokalaria bakoitzari zenbaki bat jarriko zaio zozketaz. Ahal bada, klub bereko jokalariek lehenengo txandetan jokatuko dute euren artean.

Parekaketak joko aretoan erakutsiko dira. Sistema suitzarra erabiltzen bada, sistema informatikoaren bidez egingen da.

Sistema suitzarraren kasuan, parekaketan aurkako erreklamazioak kontuan hartuko dira kasu hauetan (partidak hasi aurretik betiere):

- Jokalari berberaren aurka bigarren aldiz jokatzea.
- Hiru aldiz jarraian kolore berberarekin jokatzea (azkeneko txandan izan ezik).
- Kolore batekin bestearekin baino hiru aldiz gehiago jokatzea (azkeneko txandan izan ezik).

Parekaketak, emaitzak eta sailkapenak NXFren bulegoan eta webgunean modu publikoan erakutsiko dira.

Atsedanak:

Txanda guztietan har daiteke atsedena, aurreko txanda baino lehen idatziz NXF-ri edo epaile taldeari eskatuta. Behin bakarrik lor daiteke puntu erdia, lehenengo hiru txandetan lehenengo aldiz eskatzen denean (azkeneko bi txandetako bat ez bada beti ere).

Ezberdinketa sistemak, orden honetan, sistema suitzarra erabiltzen bada:

Jokalarien arteko emaitza.

AROC sistema.

Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta (ez jokaturako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Bucholz osoa (ez jokaturako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Sonnenborn-Berger (ez jokaturako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Ezberdinketa sistemak, orden honetan, Liga erabiltzen bada:

Jokalarien arteko emaitza.

Sonnenborn-Berger (ez jokaturako partidak berdinketatzat hartuko dira balizko aurkari baten aurrean).

Koya sistema.

Garaipen kopurua.

5 minutuko 2 partida. Lehenago haien artean jokaturako partidatik koloreak aldatuta hasiko dira.

Koloreak zozkatuta, 6 minutu zurientzat eta 5 minutu beltzentzat eta partida batean erabakiko da (berdinketa, beltzen alde).

Erreklamazioak:

Torneoko zuzendariak antolaketa arloko erantzukizuna hartuko du eta ardura teknikoa ere bai.

Araudiaren aplikazioaren inguruko erreklamazioak hasiera batean Torneoko zuzendariak ebatziko ditu.

Diziplinazko ondorioak izan ditzaketen arazoak Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordera bideratuko ditu.

Bestelako arazoen aurrean epaileek hartutako erabakien aurkako erreklamazioak NXFren Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordearen aurrean aurkez

daitezke, Txapelketen Araudi Orokorrean adierazitako epean eta moduan (14.8tik 14.12ra artikulua).

Sailkapena:

Beteranoen Nafarroako txapeldun titulua izanen du garaileak. Emakume beteranoen Nafarroako txapeldun titulua izanen du lehenengo emakumeak. Dagozkien eskubideak izanen dituzte.

Superbeteranoen Nafarroako txapeldun titulua izanen du lehenengo superbeteranoak. Emakume superbeteranoen Nafarroako txapeldun titulua izanen du lehenengo emakume superbeteranoak. Dagozkien eskubideak izanen dituzte.

Bestelakoak:

Joko aretoan ezin izanen da analisisirik egin.

Nuevo Casino Principal jatetxean bazkaria hartzeko bi lagunentzako 4 bono zozketatuko dira torneoa amaitu duten jokalarien artean.

Partidak jokatzeko ari diren bitartean ateratzeko, epaileei baimena eskatzea gomendatzen da.

Parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Antolatzailea:

Nafarroako Xake Federakundea.

Torneoko zuzendaria:

Pablo Urriza Iricibar.

Epaile nagusia:

CAFNA-k izendatuko du.

JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETAREN HURBILEKO HISTORIA

2003-04ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2004-05eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2005-06ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2006-07ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2007-08ko denboraldian: **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, garaile.

2008-09ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2009-10eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2011-12ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2012-13ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2013-14ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2014-15eko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile.

2015-16ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Alfonso Cemborain Oricain**, bigarren; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, hirugarren; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2016-17ko denboraldian: **Jesus Martinez Zazo**, garaile; **Jesus Urbiola Martinez**, bigarren; **Alfonso Cemborain Oricain**, hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2017-18ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, txapelketako garailea; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, beteranoetan garaile; **Cesareo Arrese-Igor Sanchez**, beteranoetan bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, beteranoetan hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren superbeterano.

2018-19ko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Alfonso Cemborain Oricain**, garaile; **Joseba Otano Villanueva**, bigarren; **Adolfo Ruiz Anton**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Rafael Ruiz Escobar**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Juan Sanciñena Arpide**, garaile; **Jose Javier Perez Remondegui**, bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Felipe Martin Marin**, garaile; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, bigarren.

PALMARESA, 2003-04ko DENBORALDITIK, BETERANOETAN

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 7 titulu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez – 5 titulu.**
- 3) **Alfonso Cemborain Oricain – Titulu bat.**
- 4) **Jesus Maria Gonzalez Pabollet – Titulu bat.**
- 5) **Miguel Angel Hernandez Barricarte – Titulu bat.**
- 6) **Jesus Martinez Zazo – Titulu bat.**
- 7) **Juan Sanciñena Arpide – Titulu bat.**

PALMARESA, SUPERBETERANOETAN

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 3 titulu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez – 2 titulu.**
- 3) **Felipe Martin Marin – Titulu bat.**

2021-12-15.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.